



Laztanan portalean	3
Arre arre asto barrabana	4
Txakur txiki polit bat	5
Baga biga	8
Frantziako kortea	9
Txomin dingin dango	10
Tolon tolon	11
San Juan	13
Haizea, itsasoa eta lurra	16

1 LAZTANAN PORTALEAN



Lo-kanta da eta umea lokartzeko erabili izan da gehienetan baina, horrez gain, beste erabilera bat ere eman diezaiokegu: lokartzeko agindua nork ematen duen asmatzeko jolasa.


Hasteko, jolasa bideratzen duen pertsonak lokartzeko aginduak nork emango dituen adostuko du ezkutuan.

Ondoren, egin biribil bat eta eseri elkarri eskuak emanda. Zabaldu eskuak eta jarri esku-ahurrak gora begira, jarri ezkerreko eskua ezker aldeko lagunaren esku gainean eta eskumako eskua eskumako lagunaren eskuaren azpian (esku-ahurrak gora begira).

Kantuan hasteko prest?

Antzar-jokoaren moduan ekingo diogu: kantuaren pultsua elkarri pasatuko diogu; ezkerretik hartu eta, etenik gabe, eskumara pasatu kantua bukatu arte.

Adostutako lo-eragileak lotan jarriko ditu jolaskideak begiaz keinu eginez eta banan-banan, beste inork ikusi gabe. Behin "loak hartuta" edo keinua jasotzen duen jolaskideak jokatzeari utzi beharko dio, eta besteek jarraituko dute jolasean kanta amaitu arte. Kantaren amaiera egokitzen zaion kideak lo-eragilea nor den asmatu beharko du, ordurako denak lokartuta ez badaude, noski.



ESAERAK

Arbola fruituetatik eta pertsona hitzetatik ezagutzen da.

Arbola guztiek, adar bat igarra.


Nolako arbola, halako fruitua.

2 ARRE ARRE ASTO BARRABANA



Umea belaunen gainean hartu eta astoaren mugimendua imitatzeko jolasa dugu hau. Hemen aurkezten den bertsioan azkartxoago doa doinua, eta honako jolas hau proposatzen dizugu.

Biribil batean eseriko gara eta, kantatu bitartean, denon eskuak bata bestearen gainean jarriko ditugu txandaka. "Etxerako bidean galdu in dana" esatean, eskuak gora eta behera mugituko ditugu eta, kanta bukatzean, nork bere belaunen gainean ipiniko ditu eskuak, ahurrak gora edo behera begira jarrita. Batzuek gora begira izango dituzte eta besteek, behera; desberdin dituenak bakarrik denean amaituko da jolasa eta bera izango da irabazle. Bat baino gehiago geratzen badira, haien artean egingo da jolasa berriro bakar bat geratu arte, edo bi, akaso.



Beste modu batean ere egin dezakegu jolastxoak; zutitu eta biribilean bueltaka baina oraingoan esku bakarrarekin, biribilaren erdian jartzen dugun eskuarekin. Eta, zailago nahi izanez gero, biribilean bueltak atzerantz ere eman ditzakegu.

ESAERAK

Bakoitzak bere astoari arre.

Astoak mandoari, "belarri handi".

Astoa saldu ta mandoa erosi (salerosketa eskasa).

3 TXAKUR TXIKI POLIT BAT



Abestiaren pultsua jarraituko dugu abesti honetan; baina, zer da pultsua?

Gure bihotzak taupadak dituen moduan, musikak ere bere taupadak ditu eta hori da, hain zuzen ere, pultsua. Bihotzean eskua jarriz gero, sentitu egiten ditugu taupadak, eskumuturrean edo samako zain jugularren parean. Bihotz-taupadak erregularrak eta etenik gabekoak dira. Musikan ere horrela da, musikak bere taupadak ditu eta arinak edo geldoak izan daitezke baina beti erregularrak eta etenik gabekoak, bihotzarekin gertatzen den moduan, konstanteak.



Eta munduak berak ere badaukala esan daiteke. Denak du bere pultsua, oinez goazenean gure pausoak, autoen keinukariak edo kristal garbigailuak, erlojuen tiktaka, egunak eta gauak...

Askotan kantu bat kantatzen dugunean, pultsua eskuekin edo hankarekin eramaten dugu inkontzienteki bada ere.

Egingo al dugu proba gure kantuarekin?

Arkatz bat hartu eta mahaiaren gainean kolpetxoak emango ditugu markatutako silabetan, ados.

TXA-KUR TXI-KI PO-LIT BAT
GAL-DU JA-KU GU-RI,
E-ZAU-GA-RRI-A DAU-KO
A-GER-TU BA-LE-DI


BE-LA-RRI BAL-TZAK E-TA
BUZ-TA-NA BEI-LE-GI,
I-RUN-TSI-KO LEU-KE-LA
O-GI-TAN LI-BRA BI

3 TXAKUR TXIKI POLIT BAT



Gai izan zara ariketa betetzeko? Ba, horixe da pultsua eramatea.

Orain badakizu kolpe bakoitza pultsu bat dela. Ahalegindu, kantatu ahala, pultsua bere tokian zuzen markatzen.



Puntu, puntu-marra eta menditxo guztiak bete al dituzu, bat bera ere soberan geratu gabe? Ederto!

Ea, eredu gabe orain. Hartu arkatza eta saia zaitetz orri zuriaren gainean ariketa bera egiten.

3 TXAKUR TXIKI POLIT BAT



Eta amaitzeko, kantatu eta pultsua eraman bitartean, irudi polit bat sortuko dugu ikusitako puntu, marra eta menditxoak erabilita.



ESAERAK

Txakur isilek, aginkadie seguru.

Txakurra ona bada ere, erakutsi behar.

(Umerik bizkorrenak ere ikasi egin behar).


Txakurrak 3 hesialdi, astoak 3 txakurraldi, gizakiak 3 astoaldi.

(Hesiak egiteko erabiltzen ziren olek edo hesolek 4 urte irauten zuten, gutxi gorabehera. Txakurraren bizitza, beraz, 12 bat urte).

5 FRANTZIA KORTEKOA



Hemen aurkezten den kantuari balada edo erromantze esaten zaio eta Erdi Aroko narrazioetan du jatorria. Europa osoan da ezaguna, Amaginarreba gaiztoa izenez Gaztela aldean eta Frantziako anderea Frantzia partean. Bizkaian hainbat aldaera aurkitu dira eta Erandion ere bizirik dagoela esan daiteke. Baladan, amodiozko gertaera lazgarria kontatzen da: Frantziatik emaztegaiarekin etxera bueltan datorren semeari neska hiltzeko agindua ematen dio amak.



6 TXOMIN DINGIN DANGO



Kantutxo honetan izenak agertzen dira, eta hurrei asko gustatzen zaie kantuetan beren izenak agertzea edo entzutea; ez dute horren gustuko adarra jotzeko denean, jakina.



ESAERAK

Kanpairik entzun nahi ez duenak sokatik ez tira.

Kanpaiak mezetara deitzen, bera ez joaten.

Urrineko kanpaiak, hots haundie.

7 TOLON TOLON



Kantutxo honekin erritmoa landuko dugu; baina zer da erritmoa? Ez da erraza definizio bat ematea, baina hona hemen azalpentxo bat: kantuaren silaba bakoitza markatzea. Gure esku bateko bi atzamarrekin (luzea eta bizkorra) beste eskuan kolpetxoak emango ditugu, silaba bakoitzeko bat. Horrela, kantuaren erritmoa markatuko dugu.

Erritmoa landu ondoren jolasari ekingo diogu.

Lehenik, kantu osoa kantatuko dugu erritmoa eramanez. Ondoren, bigarren edo hirugarren aldiz kantatzen dugunean, animaliak isilean edo barrutik kantatuko ditugu eta isiltzen dugun zatiaren erritmoa argi markatuko dugu. Hurrengo bueltan, lekuak isilduko ditugu eta berdin egingo dugu (erritmoa zuzen markatuta); amaitzeko, ahal bada, abiadura azkartuko dugu.

Txikiagoekin beste modu honetan egin dezakegu. Semaforo moduko bat izango dugu prest aldez aurretik: biribil bat, adibidez. Alde batetik, gorria; eta, bestetik, berdea. Semaforoak gidatuko du jolaskideek noiz isildu eta noiz kantatu behar duten. Lehenik, heldua izan daiteke gidaria edo semaforoduna, baina gero umeek eurek gidatu beharko dituzte beren kideak.




ABEDEGRAMA

Jolas honetan aritzeko lehenik biribil bat marraztuko dugu zoruan klarionaz, irudian agertzen den moduan. Barneko biribiltxora nor lehenago heldu izango da jokoaren helburua.

Hasteko, zotz egiteko formula moduan erabiliko dugu kantua; hau da, Erandio inguruan jaso den tankera berean erreztatuz.

*Tolon-tolon
asto solon
behie kortan
txarrie kamaran
tolon-tolon*



Marraztu eta zozketatu ondoren, abedegrama osatzen hasiko gara; txandaka, zentzua duen esaldi bat sortuko dugu elkarrekin, eta hitz bat gehituko diogu esaldiari txanda egokitzen zaigunean. Gure txanda heltzean hitzik ez badugu, atzera egin beharko dugu lauki bat eta hurrengoak jarraituko du. Erdiko biribilera lehenengo heltzen denak irabaziko du jolasa.

ADIBIDEZ: Lehenengoak esango du **A**sto, hurrengoak **B**at, hurrengoak **D**ator, hurrengoak **E**randioko, hurrengoek... **F**eriatik, **G**ainean, **H**iru, **I**gel, **J**auzika...

“Asto bat dator Erandioko feriatik gainean hiru igel jauzika...”

Txikienekin esaldiak sortu beharrean hitzak sortuko ditugu.

ADIBIDEZ: lehenengoak esango du **S**, hurrengoak **A**, hurrengoak **R**, hurrengoek... **T, A, G, I, N.**

“SARTAGIN”

Hitz batek buelta asko eman ditzake; bakoitzak bere buruan hitz bat du eta bat-batean nola aldatzen den ikusteak badu bere xarma. “S” entzutean etorriko zaigu SUA, SORGINA, SUGEA... baina hurrengoak beste zerbait du buruan, “A” esan du eta. Hara!, hizkiak gehitu ahala buruan dugun hitza aldatuz eta aldatuz joango gara hitz berrira egokitzeko. Ez al da polita denon artean sortzen aritzea?

8 SAN JUAN



Udako solstizioa, ekainaren 20an edo 21ean den arren, 23 gauean ospatzen da udaburua. Beraz, San Joan edo Donibane bezpera dugu egun seinalatua gure herrian. Solstizio hitzak Eguzkia geratu egiten dela esan nahi du latinez, eta Eguzkiak punturik gorena hartzen duela zeruan: urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena.

Gure herrian, besteetan egiten den antzera, ospakizun eta erritu ugari egiten dugu eta gehienak taldean eta kanpoan egiten dira. Beharbada, suaren ospakizuna da ezagunena baina urak, garoak edo ihintzak ere badute indarra eta magia San Joan ospakizunetan. Hona hemen adibide batzuk:

- Suaz piztutako gari sorta edo txolak hartu eta sororik soro eta fruta-arbolak zeuden inguruetatik joaten ziren kantatzen bazterrak arazteko edo purifikatzeko. Beranduago, botere hori, garbitzeko boterea, San Joani ezarri zitzaion kristautasunaren etorrerarekin.
- San Joan goizeko garotan edo ihintzetan oinak busti egiten ziren, osasunerako ona zelakoan.
- Beste leku batzuetan, iturriko uraz gorputz osoa garbitzen zuten kanpotik; barrutik garbitzeko, ordea, edan egiten zuten goiz horretako ura.
- Goizaldean, eguzkiak dantza egin aurretik, Donibane goizean dantzan egiten baitu eguzkiak, lizar-adarrak ekartzen ziren basotik baserrietako ateetan ipintzeko.
- Esaera zaharrak dioenez, gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat, horrela bereizten eta sentitzen zuten gure arbasoek. Egunez, izaki arrazionalak ibiltzen ziren eta, gauez, izaki mitologikoak. Esaterako, eguzki-lorea etxeko atean jarrita sorginkerien eta gauza txarren kontra erabili ohi zen. Sineskera batek dio, sorgina eguzki-lorearen iletxoak kontatzen entretenu egiten zela eta konturatu barik eguna egiten zitzaiola etxe barrura sartu aurretik. Hara nondik datorkion eguzki-loreari sorginkerien kontrako boterea!

Jarraian aurkezten den jarduera sorta hau kanpoan eta taldean egitekoa da San Joan errituak egiten diren bezalaxe. Gure arbasoek San Joan goizeko egunsentian askotariko lore eta belarrak batzen zituzten enplastuak egiteko; goiz horretan

batutakoek indar berezia omen zuten. Guk, mendira egingo dugun ibilalditxoren baten, mota askotako hosto, lore eta belarrak bilduko ditugu ekintza hauetarako:

1- Lore beilegien petaloekin azazkalak apaindu. Esaterako, urrebotoi edo eguerdilili (*Ranunculus repens*) landarearen petaloak erabil ditzakegu.



2- “Lilirite, margarite eta hi sobrarite” esan, desioa eskatu eta putz egin. Txikoria-belarra, sorgin-belarra edo mando-belarraren papusa erabiltzen da horretarako (*Taraxacum officinale*).



3- Ezkiaren haziak gora bota eta nola erortzen den buelta-bueltaka begiratu. Ezkiak 30 espezie inguru dituen *Tilia* generoko zuhaitzak dira.

4- Hosto eta belarrekin txistu egin. Esaterako, *Ligustrum* generoko edozein espeziaren hostoekin.



5- Ziei barruko esponjatxoak nork luzeago atera. Zia, ziria edo ihia *Juncus* generoko landarea da.



6- Sasiakaziaren adartxoak usaintzera eman eta "tarrat" egingo diogu usaintzera hurbiltzen denari. Hau da, adarretik gure hatzak irristatzean hostoak askatuko ditugu mugimendu arin batez. Sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) zuhaitz espezie bat da, akazia itxura duena baina akazia ez dena. Landare inbaditzailetzat hartzen da Euskal Herrian.



ESAERAK

San Juanek esku batean sua eta bestean uda.

San Juanek esku batean sua eta bestean ura.

Gaur da San Juan biher "juan zan".


Sua, Gabonetan txapan eta San Juanetan plazan.

HAIZEA, ITSASOA ETA LURRA



Hasteko, marra bat egin edo soka bat ipiniko dugu zoruaren gainean. Jolastuko garenok marraren alde baten jarriko gara, alde hori **LURRA** izango da; marraren beste alde, **ITSASOA**; eta marra edo soka zapalduz, **HAIZEA**. Gutariko batek aginduak emango ditu, nahi bezala, jolaskideak batera edo bestera mugiaraziz. Saltoka-saltoka aginduak betetzen joango gara, gero eta arinago. Okertzen denak ilara utzi eta kanpora joan beharko du, bakarra geratu arte.

Ondoren, hitzak aldatu egin ditzakegu eta jolasa apur bat konplikatatu beste eremu semantiko batzuk erabilita, adibidez: animaliak (itsasokoak, lurrekoak, hegalaria...) edo, ortuariak (lurraren gainean hasten direnak, lurraren azpian...).



ESAERAK

Behi beltzak, esnea zuri.

Behiak min, gurdiak irrintzi.

Besteen behiak, errapea handi.